


Euskal AEko industria-prezioak %0,3 hazi dira 2024ko otsailean, aurreko hilaren aldean

2023ko otsailarekin alderatuz, %6,6ko beherakada izan dute

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko industriako prezioak %0,3 igo ziren 2024ko otsailean, aurreko hilaren aldean. Otsaileko urte arteko tasak, azken hamabi hilabeteetan industria-prezioek izandako aldakuntza laburbiltzen duenak, %6,6ko atzerakada izan du.

Azterketa xeheago batek agerian uzten du, 2024ko otsailean, *Koke- eta petrolio-findegia* (%4,9ko igoera) eta *Erauzketa-industriak* (%1,5) sektoreek izan dituztela igoerarik handienak prezioetan, aurreko hilaren aldean. Aitzitik, prezioetan hil arteko jaitsierak izan zituzten sektoreak *Farmazia-produktuen fabrikazioa* (%9,0) eta *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintza* (%1,7) izan ziren.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Ondasunen helburu ekonomikoaren araberrako sailkapenari jarraituz, 2023ko urtarilaren aldean *Energiaren* prezioak %2,8 igo dira. *Kontsumo-ondasunek* %0,6ko jaitsiera izan dute prezioetan, *Kontsumo-ondasun ez iraunkorren* prezioak %0,7 jaitsi direlako eta *Kontsumo-ondasun iraunkorren* prezioak egonkor mantendu direlako. *Bitarteko ondasunen* prezioak %0,1 igo eta *Ekipamenduko ondasunenak* %0,5 jaitsi dira.

Urte artean, 2024ko otsaila 2023ko otsailaren aldean, prezioen igoerarik handienak *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintza* (%8,5) eta *Erauzketa industriak* (%5,0) adarretan izan dira. Urte artean jaitsierarik handienak: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (%37,5) eta *Zurgintza, papera eta arte grafikoak* (%6,6).

Euskal AEko Industria prezioen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Otsaila 2024

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m / m-1	m / m-12
INDIZE OROKORRA	125,8	0,3	-6,6
SEKTORE-BANAKETA			
Ateratze-industriak	133,1	1,5	5,0
Manufaktura-industria	130,4	0,4	-0,5
Elkadararen, edarien eta tabakoaren industria	131,8	-0,2	-1,2
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	112,5	-1,7	8,5
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	141,8	-0,6	-6,6
Kokeak eta petrolio fintzen	140,5	4,9	-4,5
Industria kimikoa	145,8	1,0	-4,6
Botiken fabrikazioa	132,3	-9,0	3,0
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	121,2	-0,5	-1,2
Metalurgia eta produktu metalikoak	141,5	0,1	0,1
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	120,7	-0,3	-2,2
Material eta ekipoen fabrikazioa	119,2	0,4	3,2
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	117,0	0,2	1,9
Garraioko materialen fabrikazioa	113,4	-0,9	4,6
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	120,7	0,0	-0,3
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	97,6	-0,5	-37,5
Ura	133,4	0,5	1,6
INDUSTRIA-SEKTORE HANDIEN ARABERA			
Kontsumo-ondasunak	129,8	-0,6	-0,4
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	120,6	0,0	4,0
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	131,3	-0,7	-1,0
Ekipo-ondasunak	119,1	-0,5	1,8
Bitarteko ondasunak	135,7	0,1	-0,7
Energia	115,6	2,8	-25,8

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m / m-1: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2024ko Martxoaren 21a

Iturria: Eustat, Industria Prezioen Indizea

Helburu ekonomikoaren araberrako ondasun-talde handietako prezioen urte arteko aldakuntza negatiboa izan da *Energian* (%25,8ko jaitsiera) eta *Bitarteko ondasunetan* (%0,7ko jaitsiera). *Kontsumo-ondasunak* %0,4 jaitsi dira, *Kontsumo-ondasun iraunkorrak* %4,0 igo direlako eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak* %1,0 jaitsi direlako. *Ekipo-ondasunen* prezioak, aldiz, %1,8 igo dira.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik. Horiei esker, hilabete honetako indizea lagingaren **%90,73**ko estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62